

**NORTEGAS-era BISITA
VISITA A NORTEGAS**

2022-05-02 Zamudio 02-05-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Bizkaiko ahaldun nagusia, Sailburua, Derioko eta Zamudioko alkateak, herri agintari eta ordezkariok; Nortegas, BH2C eta enpresen arduradunok, jaun andreok, egun on! Trantsizio energetiko-ekologikoa sustatzen ari gara, etorkizuneko gure lehenetasunetako bat baita.

Klima-aldaketa eta trantsizio berdea Europa eta mundu mailako erronkak dira.

Euskadin, “Basque Green Deal”-ekin dugun konpromisoak hiru osagai ditu eta azpimarratu egin nahi ditut:

- Ingurumena zaintzea,
- Energia berriztagarriak indartzea, eta
- Eraginkortasun energetikoaren proiektuak garatzea.

Gaur “H2Sarea” proiektuaren aurkezpena partekatzen dugu. Etorkizuneko proiektu estrategiko bat da. Berritzailea eta aitzindaria, elkarrekin garatu behar duguna.

Guztira 1.300 milioi euro inbertituko ditugu 2026garren urtera bitartean; zuzeneko 1.340 lanpostu sortuko dira eta, horrekin batera, 6.700 zeharkako lanpostuak.

“Basque Green Deal” es una apuesta compartida, un acuerdo social en línea con el “Pacto Verde Europeo”.

Hemos asumido el objetivo de reducir a cero las emisiones de gases de efecto invernadero en 2050. Nos hemos sumado a la transición de los Clúster industriales a las emisiones netas cero. Contamos con el Plan de transición energética y cambio climático, así como el Plan de economía circular y bioeconomía. Esta es una Estrategia público privada compartida.

La transición energética y medioambiental es una herramienta al servicio de la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía y, también, un revulsivo para la transformación industrial y empresarial.

H2Sarea es un proyecto que aborda uno de los retos actuales más relevantes: desarrollar soluciones para que las energías renovables produzcan gran cantidad de hidrógeno y se utilice en diferentes aplicaciones.

La creación de un ecosistema del hidrógeno, con base en Euskadi, permite avanzar en la descarbonización de los sectores de la energía, industria, servicios y movilidad.

Responde a una necesidad acuciante y abre puertas a nuevas oportunidades tecnológicas e industriales.

Supondrá una inversión de más de 1.300 millones de euros hasta el año 2026. La previsión es generar más de 1.340 puestos de trabajo directos y 6.700 indirectos.

H2Sarearen helburua da egungo gas naturala banatzeko azpiegiturari beste erabilera bat ematea, azpiegitura hori egokituz. Horrela, hidrogenoa ekoizpen-puntuen eta azken kontsumitzaileen artean banatu ahal izango du.

Proiektu honek konponbide teknologiko aurreratuak garatzen ditu, gas naturalaren sarean hidrogenoaren banaketa segurua lortzeko helburuarekin.

Industria-osagaia ere nabarmentzen dut, banaketa-azpiegituren materialetan, osagaietan eta eraldaketan irtenbide berriak ahalbidetzea baita helburua.

Damos la bienvenida a este proyecto innovador.

Esta es una apuesta estratégica y de futuro, con una visión integral para mejorar la distribución, incrementar la eficiencia y avanzar hacia una economía descarbonizada, con la participación en el proyecto H2Sarea del uso de gases de origen renovable como el biogas y el hidrógeno verde.

Apostamos por proyectos como el “Corredor del hidrógeno” para revertir el cambio climático.

La colaboración es una de las claves de este proyecto de futuro.

Euskadi se ha sumado recientemente al Corredor del Hidrógeno del Ebro junto a la Comunidad Foral de Navarra, Aragón y Cataluña, comunidades que junto con Nueva Aquitania, Occitania, así como con el Principado de Andorra, integran también la Comunidad de Trabajo de los Pirineos que presidimos desde Euskadi.

Nuestra ubicación estratégica en el Arco Atlántico, y la conexión con Francia, nos podría abrir la puerta a buscar sinergias con Nueva Aquitania y Occitania.

Si todos los Territorios o Comunidades aunamos fuerzas en la misma dirección, los logros serán de gran calado.

Ongi etorri proiektu berritzaile honi. Apustu estrategikoa eta etorkizunekoa da, eta ikuspegi integrala du:

- Banaketa-sareak hedatzea;
- Efizientzia eta produktibitatea handitzea;
- Horniduraren kalitatea eta segurtasuna etengabe hobetzea; eta
- Ekonomia deskarbonizatu baterantz aurrera egitea.

Ongi etorri H2Sarea.

Zorionak eta eskerrik asko guztioi!